

**AKTA
(2016/04)****EUSKERA AHOLKU BATZORDEA**

Bilkura:	Ohikoa
Data:	2017ko martxoak 09
Lekua:	Gaztelekua (Kultur Etxea)
Hasiera-ordua:	19:00
Amaiera-ordua:	21:00

Etorritakoak:

Batzordeburua: Juan Karlos Agirre
Beralagun eta Sagrado Corazon ikastetxeko guraso elkarteak – Marimar Hernandez
Bermeoko hizkuntza eskola – Miren Unzueta
Bermeoko osasun etxea – Rosa Mari Urrutia
Bermeoko osasun etxea – Iratxe Lamikiz
Besalde – Anabel Alegria
Eleizalde ikastola – Lexuri Markina
Eleizalde ikastolako gurasoen sarea – Eneritz Ruiz
Eskubaloia taldea – Ines Arregi
Euskaltzalea – Jose Anton Azpetia
Herri ikastetxeko guraso elkarteak – Xabier Uriagereka
Izartu Bermeo – Aitor Atutxa
LAB sindikatua – Ramon Garaizar
MB2000 aisialdi elkarteak – Maribi Larrinaga
Sagrado Corazon Ikastetxea – Asier Abaroa
Sareginak – Yaiza Goikoetxea

Ezin etorria adierazi dute:

AEK – Iratxe Garmendia
Arraun elkarteak – Gaizka Beitia
Batun batun aisialdi elkarteak – Maite Atxikallende eta Olatz Perez
Berton – Amaia Galvan
Eleizalde ikastola – Urko Goitia
Erroxape – Marijose Lopez
Euskeraz Berbetan – Albert Zarate
Gazteria Sail – Iñaki Lopez
Gotzon Garitaonandia euskaltegia – Marije Layuno
Hitza – Olaia Zabalondo
Hizkuntza eskola – Miren Unzueta
Osakidetza – Leire Sagastizabal
Zinegotzia – Benito Ibarrolaza
Zinegotzia – Aritz Abaroa
Zinegotzia – Idoia Platas
Zinegotzia – Alazne Zumeta
Zinegotzia – Jon Goikolea



Teknikari aholkulariak: Maite Alvarez eta Ainara Ibañez

Idazkaria: Maite Alvarez

Aztergaiak

1.- Aurreko akta irakurri eta onetsi

Ez da egin ezelako iruzkinik eta akta onetsita geratu da.

2.- Laburrean

- *Geuk eus* bideo-photocall-a ikastetxeetan
 - Ikastolan martxoaren 12an
 - Herri Ikastetxean maiatzaren 7an
 - Sagrado Corazónen maiatzaren 27an
- Bermeoko hizkuntza-erabilera. Kale neurketaren emaitzen aurkezpena martxoaren 15ean, Kultur Etxean arratsaldeko 7etan.
- *Bermeo eta Ondarroa. Hizkuntzaren garapenean eragiten duten faktoreak* azterlana.
UEMAren laguntzaz egingo da eta martxoan hiru eztabaida-talde eta lau elkarrizketa sakon egingo dira. Horren ostean, galdetegia, 384 pertsonen erantzuteko.
- *Bizentaren lumak* jolasa gazteekin
Aurten, Geurien be bai lan dinamikaren barruan, gazteekin ekimen berria martxan jarri gura da. Ekimen honetan, elkarlotu gura dira berdintasuna, gazteak, euskara eta parte hartzea.
Berdintasunari buruzko hainbat kontzeptu landuko dira eta horretarako, 8-10 dinamizatzaile formazioa eskainiko zaie, euren lagun taldeak dinamizatu ditzaten.
30-40 gazte batu gura dira mahai bueltan erabakiko den udaberriko egun batez kalean.
Prestaketa fasean gaude, parte hartu ahal eta gura duten gazteak bilatzen.
Gazteria Sailari eta Sareginek taldeari aurkeztu diegu ideia eta Aholku Batzordeko kideek proposamenak eginez gero, ondo etorriak izango dira.
- *ArNASA txiKITXUAK* ikus-entzunezkoa
Joan zen urtean Udalak diru laguntza eman zion Garabide elkarteari hizkuntza-kooperazio proiektu bat garatzeko, Nasa eta Kitxua hizkuntzen berreskurapenari buruzko ikus-entzunezkoa egiteko, hain zuzen.
Lana eginda dago eta maiatzaren 12an aurkeztuko da Bermeon. Bideoaren laburpena, hemen: <https://youtu.be/Rpd23oiCv18>.



3.- Kirola eta aisialdia euskaraz

Gaia kokatuz, gai honi ekiteko izan ditugun oinarrizko premisak eta galderak ekarri ditugu gogora. Ekaineko bileran esan genuenez, umeari, gaztetxoari euskaraz naturaltasunez bizi dadin, euskara gustuko ekintzetan erabiltzeko eskaintza zor diogu eta galdera honi erantzuna bilatu gura izan diogu: posible da, gaur eta hemen, kirol eta aisialdi eskaintza euskaraz izatea?

Talde bitan jarrita, ekaineko bileran aztertu genituenak gogorarazi ditugu: zer espero genuen gai honi heldu genionean, zein da helburu nagusia, zer ulertzen dugu euskara gehiago erabiltzea diogunean eta zeri erreparatu behar diogun. Beste alde batetik, aisialdian eta kirolean parte hartzen duten eragileak identifikatu genituen eta oraingo egoera zein den eta etorkizunean izan nahiko genukeena irudikatu genituen, taldean, mugimenduaren bidez.

Horiek denak behin gogorarazita, ordutik hona egindako lana aurkeztu dugu, hau da, eragileek eurek galdetegi bidez esandakoak eta horien ondorioak.

- Galdetegia 6 kultur talderi, 4 ikastetxeri eta 11 kirol-talderi bidali genien eta 18ren erantzunak jaso ditugu. Hona hemen erantzun dutenen zerrenda:
MB 2000
Batun-Batun
Barrueta Arte Elkarte
Buztina Zeramika Taldea
Alkertasuna Dantza Taldea
Txo Sevilla
Eleizalde Ikastola
Sagrado Corazón
San Frantzisko
Institutua
Axpoandi Bermeoko Igeriketa Taldea
Boxeo Urdaiboxing Taldea
Taraska Atletismo Taldea
Urdaibai Eskubaloia Taldea
Artza Pelota Elkarte
Arraun Elkarte
Futbol Taldea
Judo Taldea
Karate Elkarte
Matxitxako T.K.T.
Xixili Gimnasia Taldea
- **Kultur taldeei dagokienez**, erantzun duten 5 kultur elkarteetako 4tan, begiraleak euskaldunak dira eta antolatzen diren ekimenak euskaraz izaten dira.



- Begiraleek euskaraz egiten diete ume eta gaztetxoei eta ume eta gaztetxoek ere euskaraz begiraleei, kasu gehienetan.
- Gaztetxoek joera dute, euren artean, noizean behin gaztelaniaz egiteko.
- Elkarte horietako begiraleek gurasoekin dituzten harremanak ere euskaraz izaten dira.
- Nabarmenezkoa da Alkartasuna dantza taldearen jarduna, erabat euskaraz dela.
- Txo Sevilla Elkarteko begiralek ez daki euskaraz eta horrek elkartearen jarduna eta ume eta gazteekiko (denak euskaldunak) harreman-hizkuntza baldintzatzen du.
- **Ikastetxeei dagokienez**, San Frantzisko Ikastetxean begirale guztiak euskaldunak izanagatik, ez dute beti euskara erabiltzen.
- Eleizalde Ikastolan gaztetxoek joera handia dute euskaraz egiteko.
- Sagrado Corazón, San Frantsiskon eta Institutuan joera handiagoa dute gaztelaniaz aritzeko euren artean, batez ere azken bietan.
- Gaztelaniaren erabilera handiagoa da ekintza jakinetan.
- Institutuko jantokiko begirale guztiak euskaldunak izan arren, euskara gutxi erabiltzen dute.
- **Kirol taldeei dagokienez**, 4 elkarte hauetako entrenatzaileak euskaldunak dira: Axpoandi Igeriketa Taldea, Judo Taldea, Xixili Gimnasia Taldea eta Urdaibai Eskubalo Taldea.
- Lehenengo hiruetan, entrenatzaileek euskara erabiltzeko joera dute (ez beti).
- Urdaibai Eskubalo Taldean, berriz, entrenamenduetan gaztelania nagusitzen da.
- Kirol Taldeetan parte hartzen duten ume eta gazteen % 95a euskalduna bada ere, Kirol Taldeen jarduna eta kideen arteko harremanak nahiko erdaldunduta daude.
- Euskararen erabilera txikia da, bereziki bi taldetan: Taraska Atletismo Taldean eta Urdaibai Eskubalo Taldean.
- Futbol Taldearen eta Judo Taldearen kasuan, kontraesanak ikusten dira. Entrenatzaile guztiak euskaldunak ez izanda ere, euskararen erabilera altua dela adierazten dute jasotako datuek.
- Talde handi bitan parte hartzen dute nagusiki, generoaren arabera:
 - ▶ Futbol Taldean, 5 eta 18 urte bitarteko herriko mutilen %41a
 - ▶ Eskubalo Taldean, 8 eta 16 urte bitarteko nesken % 27aBi elkarte horietako hizkuntza-ohituretan eragitea oso baliagarria litzateke.
- Orokorrean, entrenatzaileen eta ume eta gazteen hizkuntza-gaitasuna nolakoa den kontuan hartzen badugu, euskararen erabilera behar baino txikiagoa da.

ONDORIOAK

- Elkarteren bateren ekintzetan parte hartzen duten ume eta gazteen %77ak, (nesken % 63a eta mutilen % 91), ez dute ziurtaturik euskararen erabilera aisialdiko jardueretan, umeen % 95 baino gehiago euskalduna izanda.



- Monitorean eta entrenatzaileen % 94 euskaldunak dira baina, batz bestea, %83k erabiltzen du euskara.
- Monitoreek baldintzatzen dute ume eta gazteen hizkuntza.
- Umeen artean, gaztelaniarako joera antzematen da, batez ere, adin batetik aurrera: 12-13 urte.
- Kultur elkarteek eta ikastetxeek egiten duten eskaintzan, euskararen erabilera handiagoa da Kirol Elkarteetan baino.
- Institutuko jantokian dagoen hizkuntzen erabilera kezagarria da.
- Kirol taldeetan, maiz, monitorea euskaldunak badira ere, entrenamenduetan nagusitzen den hizkuntza gaztelania da.
- Jardueraren arabera genero-bereizketa handia dago
- Bermeoko 4 eta 8 urte bitarteko mutilen laurdena futbol eskolan ari da eta portzentaje hori ia erdira igotzen da 9 eta 12 urte bitarteko tartean.

PROPOSAMENAK

- Euskararen Aholku Batzordeak datu hauek aztertu eta proposamenak egitea.
- Erantzun dutenei aurkeztu eta hausnarketa partekatua egitea, aukerak eta zailtasunak aztertu, jarduteko ekintzak erabaki eta elkarlanean abiatzeko.
- Euskaraz ondo moldatzen diren monitorea edo entrenatzaileak kontratatzea
- Hizkuntza-ohituretan eragiteko tailerrak martxan jartzea.
- Kirol Taldeei trebakuntza eta baliabideak eskaintzea.
- Jantokietan lan egiten duten begiraleekin lanketa berezia egitea.
- Gurasoekin sentsibilizazio-lan sakona egitea.


Horiek denak kontuan izanda, talde bitan aurrera egiteko proposamenak landu dira, prototipoen bitartez eta hona hemen talde bakoitzak esandakoak:

1. PROTOTIPOA

- Eragileak irudikatu ditugu (komunikabideak, begiraleak, gurasoak, elkarteak, aginteak...) eta euren arteko harremanak adierazi ditugu.
- Pentsatu dugu zeinek zeinetan duen eragina. Adibidez: gurasoek, neurri batea, elkarteak kontrolatu ditzakete, elkarteak finantziario ekonomikoaren menpe daudelako. Elkarteetako monitorea gizartearen parte dira baina elkarte barruan lan egiten dute eta elkarteetako politiken menpe egiten dute lan. Beraz, horietan eragiteko aukera badago.
- Zergatik egiten dute umeek erdaraz? Komunikabideen eragina handia da. Komunikabideek pisu erlatibo handiagoa dute gainontzeko eragileek baino.
- Guraso moduan, ez da erraza nahi duzuna egitea. Umeak futboleant aritu nahi badu, azkenean, futboleant aritzen da.



- 6 urteko umeak gaztelaniaz hasten dira. Zergatik? Gelakoek erdararaz egiten dietelako, ordu asko telebista aurrean pasatzen dutelako eta ETBren eskaintza oso urria delako. Komunikabideak gure kontroletik kanpo geratzen dira.
- Garrantzitsua da umeen eruedetan eragitea. Umeak ere umeentzako eredu dira. Ikusten duguna da, ume liderrak normalean erdaldunak direla. Liderrak euskaldunak balira, beste umeentzako eredu izango lirateke euskararen erabileran.



2. PROTOTIPOA

- Gure ondorioa da sentsibilizazioa jorratu behar dugula.
- Euskarari ikusgarritasuna eta prestigioa eman behar diogu.
- Prototipoaren erdigunean euskara irudikatu dugu (koloretsua, anitza, erakargarria). Euskara iman bat litzateke, dena erakartzen duena.
- Euskararaino iristeko zubi asko eraiki ditugu; zubiak eremu guztietatik datoz. Batzuk urrunago daude, beste batzuk gertuago.
- Lumadunak liderrak izan daitezke.
- Oztopoak ere irudikatu ditugu.



Prototipoetan irudikatutakoa lantzeko eta sakontzeko, beste bilera bat egitea erabaki da, apirilaren 6an, 19:00etan

4.- Galderak eta eskariak

Saioaren balorazioa



- Maketaren metodologia aproposa
- Oso interesgarria iruditu zait
- Jente gazte gehiago behar da
- Interesgarria
- Dinamika polita!
- Dinamikak orokorrean ideietan hausnartzea bideratu... baina jende gehiago behar da!
- Bikaina – lan asko egiteko
- Ekimena laket



- Ez dut helburua argi ikusten
- Denpora eza

